


**GOSEARI**  
**AURRE EGIN**  
**POBREZIA**  
**GUTXITZEKO**



# *Aurkibidea*

<input checked="" type="checkbox"/> Aurkezpena	3
<input checked="" type="checkbox"/> Gaiarekin egunean jartzeko	5-8
<input checked="" type="checkbox"/> Boli Kosta - Bonduku proiektua	9-10
<input checked="" type="checkbox"/> 1. Jarduera: Ausartu Afrika ezagutzen	11-12
<input checked="" type="checkbox"/> 1. Jarduera (Fitxa)	12-13
<input checked="" type="checkbox"/> 2. Jarduera: Gose etengabea	14-15
<input checked="" type="checkbox"/> 2. Jarduera (Fitxa)	16-18
<input checked="" type="checkbox"/> 3. Jarduera: Hitzetatik ekintzetara	19-20
<input checked="" type="checkbox"/> 4. Jarduera: Emaiezue zuek jaten	21-22
<input checked="" type="checkbox"/> Otoitza egiteko	23-24
<input checked="" type="checkbox"/> Saski-naskia	25-27

# *Aurkezpena*

PROCLADE YANAPAY Garapenerako Promozio Klaretarrak gonbidatu nahi zaitu "GOSEARI aurre egin POBREZIA gutxitzeko" kanpainan Eragile gisa aritzeko.

Duela zenbait urte, Milurtearen Garapen Helburuak (ODM), sentsibilizazio, hausnarketa eta konpromisorako ardatz bilakatu zaizkigu. Urte honetan lehenengo helburuari begiratu nahi diogu: **Muturreko pobretasuna eta gosea desagerraraztea**. Kanpaina honen bidez, gogorarazi nahi dizugu goseak, isilean, milioika pertsona hiltzen dituen errealitatea dela. Arazo honen benetako erroak, ondorio larriak eta pertsona, talde eta gizarte mailako konpromiso aukerak ezagutu nahi ditugu, gizabanako gisa gutxien gaituen errealitate hau aldatzeko.

Aurreko edizioetan bezala, Hegoaldeko ahotsak presente egongo dira zuzeneko testigantza baten bidez. Pertsona hauek leku zehatz batetik mintzatuko zaizkigu: Bondukú (Boli Kosta). Bertan, emakume talde bat anakardoak ekoizteko kooperatiba bat sustatzen ari da. Emakume hauek pixka bat ezagutzen eta euren ekimenarekin bat egiten saiatuko gara.

Zure eskuetan dagoen Gida honek lan-proposamena izan nahi du, Kanpaina hau Bigarren Hezkuntzako 1-2 mailako neska-mutilen artean sustatzeko. Talde hauekin lan egiteko aukeratu dugun gaia **GOSEA ETA INGURUMENA** da. Baliogarria izatea nahi dugu.

Kanpainaren nondik norakoak partekatzeko eta material osagarria eskaintzeko asmoz, blog bat ireki dugu:

<http://procladeyanapay.nireblog.com>

Bertara sartzen gonbidatzen zaitugu zure hausnarketak eta lanak helarazteko ([procladeyanapay@gmail.com](mailto:procladeyanapay@gmail.com)).

Eskerrik asko zure lan solidarioagatik eta misiolaritzagatik.

PROCLADE YANAPAY  
Heziketa eta Sentsibilizazio Arloa



# Gaiarekin egunean jartzeko



MILURTEAREN GARAPEN HELBURUAK		
<b>1. HELBURUA:</b>	<b>Muturreko pobretasuna eta gosea desagerraraztea</b>	
	<b>1. Helmuga</b>	<b>2. Helmuga</b>
	Dolar bat baino gutxiagoko diru-sarrera duten pertsonen kopurua erdira murriztea, 1990 eta 2015 bitartean.	Gosea pairatzen duten pertsonen kopurua erdira murriztea, 1990 eta 2015 bitartean.

XXI. mendean, gosea pairatzen duten pertsonak egotea ez da errealitate konponezina eta moralki ezin da onartu. Gosearen arazoa gehiago sufritzen duen kontinentea Afrika da oraindik ere. Sahara azpiko Afrikako populazioaren %33 elikatu gabe dago, eta garapen bidean dauden herrialdeetan elikatu gabeko pertsonen kopurua %17koa da. Portzentaje hau %55era igotzen da Erdialdeko Afrikan.

Pobretasunaren aurkako borroka ezin da irabazi gosea desagerrarazi gabe, hau baita pobretasunaren ondorioz latzena. Goseak gaixotasunak eta heriotza dakartza, pertsonen lan egiteko ahalmena kentzen die eta umeen heziketa-prozesua oztopatzen du. Osasun falta honek sorgin-gurpil batean kateatzen ditu pertsonak, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen da. Gosea, gehien bat, giza-eskubideen urraketa da.

Zoritxarrez, pobretasuna gutxitzera zuzendutako estrategia gehienek ez dute zuzenean jotzen gosearen gaia. Politika hauen arduradunek uste izan dute diru-sarrerak handitzearen eta ekonomiaren hazkundearen onurak gosea pairatzen dutenengana ailegatuko zirela. Baina desnutrizioa pobretasunaren kausa eta ondorioa da, aldi berean.



## Gosean harrapaturik

Gosea duten pertsonak pobretasunean eta ezintasunean harrapaturik daude. Desnutrizio kronikoak sortzen dituen kalteak haurtzaroan hasten dira eta bizitza osoan mantentzen dira. Giza gorputzak, behar beste kaloria eta elikagai ez izatean, jarduera fisikoa gutxitzen du, eta umeen garapena gelditzen da ia. Haurdun dauden emakumeek, gosea pasatzen dutenean, pisu gutxiko umeak izaten dituzte, eta hauek, gero, hazkundearen atrofia batez eta etengabeko gaixotasunez egingo diote aurre bizitzari. Fisikoki eta mentalki ahula den belaunaldi batek gabezia ziklo hori transmitituko dio hurrengo belaunaldiari.



## Goseak emakumeen emantzipazioa eragozten du

Munduko pobreen artean gehienak emakumeak eta neskatok dira. Ikerketek erakutsi dute, emakumeek formazio eta ezagutza gehiago dutenean, familiaren diru-sarrerak eta nutrizioa handitzen direla eta haur-heriotza gutxitzen dela. Hezkuntzak familia txikiagoak ere sortzen ditu. Baina emakumeek eta neskatok gizonezkoek baino aukera gutxiago dute ikasteko eta gaitzeko. Eta kultura askotan, gizonezkoek lehenago eta gehiago jaten dute, nahiz eta garapen bidean dauden herrialdeetako emakumeek lan-zamarik astunena jasaten dute. VIH/HIESak are zama handiagoa erantsi dio emakumeen zereginari. Gaixoak zaindu eta artatzeko beharrak lurrak lantzeko eta elikagaiak prestatzeko duten denbora mugatzen du. Honek familiarentzako elikadura sinpleago eta ez horren nutritibo bat dakar.

## Elikagai gutxi, Ikaskuntza gutxi

Heziketa da pobretasunetik irteteko modurik fidagarrienetako bat, baina ume pobre asko ez dira inoiz eskolara joaten matrikula eta uniformeen kostua dela eta, edo familiarentzat lan egin behar dutelako. Sahara azpiko Afrikan, umeen ehuneko 50 edo 60k baino ez dute izena ematen lehen hezkuntzan. Gosea pairatzen duten eta eskolara doazen umeei zailago zaie kontzentratzea eta ikasgaiak bereganatzea. Hezkuntzaren onurez gabetzean, goseak indartzen du helduak direnean sufrituko duten pobrezia.

## Lan-esku ahula: aktibo pobretua

Askotan esan ohi da pobreen aktiborik garrantzitsuenaren euren lan-indarra dela. Baina goseak hori ere murrizten du. Gorputzak energia lan bilakatzeko duen ahalmena mugatzen du gose kronikoak, pertsonak ahuldu egiten ditu eta itxaropen edo motibaziorik gabe uzten ditu. Ez da harrigarria gaizki elikatutako pertsonak lana aurkitzeko eta produktibo izateko zailtasuna edukitzea. Enplegu-emateak pentsa dezakete gosituta dauden pertsonak motelak edo alferrak direla, egiatan lozorrotuta daudenean (kaloria eta elikagai falta luzearen aurrean gorputzak duen erantzuna).



## Aldaketa klimatikoa

Aldaketa klimatikoak mehatxu berriak planteatzen ditu elikadura alorrean. Honek, gehien bat, euren nekazaritza lanetarako euri ura beharrezko duten sektore ahulenei eragingo die (nekazari txikiei eta artzain nomaden komunitateei). Ikerketek modu fidagarrian aurreikusten dute Afrikako 55 edo 65 milioi pertsona gehiago izan daitezkeela gosearen biktima 2080an, tenperatura globala ia 2,5°C areagotzeagatik. Iparraldeko gobernuek bikoiztu behar dituzte euren esfortzuak negutegi efektua sortzen duten gasen isurketak gutxitzeko, eta Afrika aldaketa klimatikora egokitzeko programak finantzatu beharko lituzkete. Halaber, Afrikako gobernuek ere lurzorua degradazioa gelditzeko neurriak areagotu behar dituzte, hauxe delako aldaketa klimatikoa errazten duten faktoretako bat.

## Gatazka armatuak

Deigarriena da gatazka armatuek Afrikan duten eragina. Hauek dira kontinenteak pairatzen dituen elikadura krisi gehienek sorburua. Elikadura-larrialdi luzea pairatu duten aberrietan, gudak edo barne borrokek funtsezko erantzukizuna izan dute. Afrikako gobernuek euren populazioa babesteko ardura duten arren, behin eta berriro ahazten dute behar hori, Ugandako iparraldean ikusi ahal izan den bezala, eta kasu batzuetan, biolentziaren konplizeak dira, Darfur-en gertatu den bezala. Afrikak pairatzen dituen elikadura-krisien erdian baino gehiagotan gatazka armatuek eta, horien ondorioz, milioika pertsona lekualdatu behar izateak duten garrantzia ikusita, behar beharrezkoa da bakea berehala ekartzeko neurriak hartzea.



## Behar larrietarako laguntza

Azken urteotan, Afrikari ematen zaion behar larrietarako laguntza areagotu da eta honek bizi ugari salbatzen lagundu du. Hala ere, laguntza txikiegia izaten da maiz, beranduegi ailegatzen da eta zabaltzeko orduan desoreka handiak daude. Askotan, giza laguntzarentzat aukeratzen den uneak eta kopuruak interes politikoekin eta komunikabideetan sortutako arretarekin zerikusi handiagoa daukate giza beharren balorazio objektibo batekin baino. Gainera, laguntza motak desegokia izaten jarraitzen du. Ez da positiboa Nazio Batuek zabaltzen duten laguntzaren %70 garatutako herrialdeetatik datozen produktuak izatea. Elikadura-laguntza ezin daiteke izan herrialde aberatsetako nekazariak laguntzeko instrumentua. Gosea pobretasunagatik elikagaiak ezin hartzearen ondorioa denean eta ez elikagaien urritasunagatik, dirutan emandako laguntza, bizimodua berreskuratzeko neurriekin batera, erantzun egokiagoa, arinagoa eta merkeagoa izan daiteke.

## Iruzurretik ateratzea: populazioa elikatzea pobretasuna murrizteko

Goseak horrenbeste eragin hondatzaile baldin baditu gizartean, zergatik gobernuek ez diote arazo honi lehentasuna ematen? Erantzun bat izan daiteke herrialdeak guztiz estututa daudela arazo multzo batekin, eta premiazkoenak konpontzen saiatzen direla. Goseteek arreta ekartzen dute, gose kronikoak, ordea, "ikusezin" izaten jarraitzen du. Honetaz gainera, munduak hainbeste emaitza on izan ditu elikagaiak sortzen ezen erabakiak hartu behar dituzten arduradun batzuek ezer ez dela egin behar uste izan baitute. Horregatik, elikadura-segurtasunaren alorrean helburu espezifiko batzuk ezarri beharrean, irizpide tradizionalak onartu eta hazkunde ekonomikoan zentratzen dira, horren ondorioz gosea murriztuko dela pentsatuz.

Baina pobretasuna gosearen kausa dela jakinda ere, gero eta argiago azaltzen ari da kontrakoa ere egia dela. Goseak pobretasuna sortu eta indartzen du. Pobretasuna modu eraginkorrean murrizteko, herrialde bateko populazioak, oroz gain, elikagai nahikoa izan behar du.

Populazioak gizartean parte hartzeko eta indartsu egoteko behar diren elikagaiak lortzen dituenean, produktibitatea areagotzen da, merkatuak zabaltzen dira eta pobretasuna murrizten da. Nutrizio hobeto batek eragin zuzena dauka hazkunde ekonomikoan, lan-eskua hobetzen delako eta, zeharka, bizi-itxaropena luzeagoa delako eta osasuna hobetzen delako.

## Akats bat zuzentzea

Honek ez du esan nahi gosearen aurka borrokatzeko garrantzia ekonomikoa dela soilik. Arrazoi nagusia morala da: planetako biztanle guztiak nahikoa elikagai izateko funtsezko eskubidea daukate. Nazioarteko zuzenbideak horrela aitortzen du, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean ezartzen den legez. Honek estatuak behartzen ditu behar diren neurriak hartzen, beharrezko baliabideak erabiliz, elikagaiak izateko denok dugun eskubidea mailaka bete ahal izateko. Itun honek azpimarratzen du ingurumen bat sortzeko duen garrantzia, gizabanakoek kontsumitzeko elikagaiak salerosi edo ekoizteko. Baina posible ez denean, Estatuak ardura juridiko eta morala dauka haiei laguntzeko, nazioarteko laguntzarekin beharrezkoa balitz.



**Gure aiton-amonei goseak errukia eta karitatea eragin ahal zien,  
baina ez zien larritasunik sortzen, haientzat naturala eta sailhestezina zelako.**

**Guri, ordea, kendu daitekeen zerbait dela erakutsi digute,  
eta horregatik harritu, haserretu eta asaldatu egin behar dugu.**

*José Luis Sampedro, Ekonomia Egituran katedraduna*



## BOLI KOSTA



✓ Côte d'Ivoire edo Boli Kosta (Izen ofiziala: République de Côte d'Ivoire), Afrika mendebaldean kokatutako herrialdea da. Liberia, Ginea, Mali, Faso, Ghana eta Gineako Golkoarekin dauzka mugak.

✓ Frantziako kolonia ohia, 1960an lortu zuen independentzia. Hiriburu ofiziala Yamoussoukro da, nahiz eta Abidjan hiriburu ekonomikoa den eta diplomazia-ordetzkaritza guztiak bertan dauden.

✓ Azken urteotan (2002-2007) guda zibila pairatu du.

✓ 18.000.000 biztanle ditu. Bizi-itxaropena 49 urtekoa da. Emakume

bakoitzeko seme-alaben kopurua 4,43koa da. Populazioaren %50,9 alfabetatua dago Populazioaren % 9 VIH (HIES) birusarekin kutsatuta dagoela kalkulatzen da.

✓ Herrialdean 65 bat hizkuntza mintzatzen dira. Entzunenetako bat dioula da.

✓ Euren laborantzarik garrantzitsuenak kafea eta kakaoa dira.

✓ Independentzia garaitik Frantziarekin lotura hurbilak mantenduz, esportaziorako nekazaritzaren dibertsifikazioarekin eta atzerriko inbertsioaren pizgarriarekin, Afrikako herrialde tropikaletako aberatsenetakoa bilakatu da. Hala ere, azken urteotan lehia handiago batek eta merkatu globalean euren laborantzen prezioek jasan duten jaitsierak eragin handia izan dute herrialdean.

✓ Populazio gehiena kristaua eta animista da.




## Guda zibila Boli Kostan



Boli Kostako guda zibila 2002ko irailean hasi zen eta 2007an bukatu, talde biak batu zirenean, eta beti bezala, herrialdeko biztanleek jasan zituzten ondorioak.

Milaka pertsonak ihes egin zuten Boli Kostatik inguruko herrialdeetara gobernuaren eta matxinoen arteko liskarrak hasi zirenean. Geroago, haietako batzuk bueltatu ziren, baina 15.000 inguru Ginean eta Liberian geratu ziren. Antza denez, Liberian bakarrik 12.000 bat errefuxiatu dago, haietako asko herrialde horretako zenbait herritan integratuta. Beste batzuek, berriz, herrialdeko hiriburura (Monrovia) ailegatu dira.

Boli Kostako guda zibilak osasun-programak geldiarazi ditu matxinoen zonaldeetan, eta HIESaren aurkako tratamenduak ere bai, populazioaren %9 VIH probatan positibo ematen duen herrialde honetan.



- ✓ INADES FORMATION Afrikako GKE bat da, eta 10 herrialdeetan lan egiten du: Burkina Faso, Burundi, Kamerun, Kongo E.D., Boli Kosta, Kenya, Rwanda, Tanzania, Txad eta Togo.
- ✓ Haren helburua nekazaritzako populazioaren garapen sozial eta ekonomikoaren alde lan egitea da, gizarteko parte hartze libre eta arduratsua sustatuz.
- ✓ Ondoko egitasmoak garatzen ditu: nekazaritza eta abeltzaintza, elikadura-segurtasuna, formazioa, alfabetatzea, komunitateen antolakuntza eta garapena,...



## BONDUKU PROIEKTUA

*Anakardoak ekaritzeko kooperatiba*



Zanzan eskualdean (herrialdearen ipar-ekialdean, Sahel inguruan), beti izan da zonalde pobrea nekazaritzari dagokionez. Azken urteotan ikusi da bere baldintza klimatikoak onak direla **anakardoak landatzeko**. Produktu honek elikadura-balio handia dauka eta gero eta eskatuagoa da tokian eta esportatzeko.

Egitasmo honen asmoak hurrengoak dira:

1. COPABO (Bonduku Nekazaritza Produktoreak) kooperatibako emakumeak **teknikoki formatzea**, anakardoak zuritu eta egokitzeko teknika zailetan.
2. **Bizitza asoziatibo eta kooperatiboari buruzko formazioa** ematea herri hauetako emakumeen elkarleen funtzionamendu ona bermatzeko.
3. Hiru autoklabe (anakardoak egosteko), eskuz zuritzeko makinak eta lehortzeko labeak **erostea**.

Egitasmo honen bidez **kalitatezko produktu finala** lortu nahi da, Europako **Bidezko Merkataritzako kanalen** bidez komertzializatu ahal izateko.

**HORNIKUNTZAREN balioa: 21.000 euro**

# 1. Jarduera: **Ausartu AFRIKA ezagutzen**



## HELBURUAK

1. Afrika kontinentearen errealitatera hurbiltzea bere ondasunak eta dituen arazo larriak ezagutzeko.
2. Kontinente erraldoi honi buruz ditugun ezagupen eza eta aurreiritziak ezagutzea.
3. Afrikako kontinenteko pertsonenganako hurbiltasun afektiboa sustatzea.

## EDUKIAK

1. Afrika munduko hirugarren kontinenterik handiena da (munduko zabalaren %22), baina munduko populazioaren %16 inguru biltzen du. 53 herrialdek osatzen dute. Hauek guztiak Afrikako Batasunaren kideak dira, Maroko izan ezik.
2. Kolonia ohiak izanda, Afrikako herrialde gehienek Europako Batasunarekiko lotura ekonomiko estuak mantentzen dituzte.
3. Sahara azpiko Afrikako biztanle gehienak gazteak dira. Zonalde honetako ezaugarri handiena aldizkako elikadura-krisien iraunkortasuna da.
4. Kontinenteko biztanle gehienek Afrikako erlijio tradizionalak daukate. Bai kristautasuna bai islama modu sinkretikoan bizi da (nahastuta).
5. Afrikari buruz esan daiteke kontinente aberats pobretua dela. Baliabide naturaletan aberatsa izan da (kotoia, kafea, kakaoa), baliabide mineraletan (urra, diamanteak), antzinako ohituretan, sendatzeko ezagupenetan,...
6. Hala ere... Komertzio librerako itunek nekazaritza produktuen prezioa jaitea ekarri dute eta honek nekazari txikiak desagerrarazi ditu (azukrea, esnea, arrosa); landatzeko lurak galtzen ari dira nazioarteko konpainiek agroerregaiak landatzeko desjabetuak; mailakako basamortu bihurtze efektua gertatzen ari da aldaketa klimatikoagatik eta monolaborantzagatik; pribatizazio basatiak lortzeko zaila den ondasuna bilakatu du ura; farmazia industria multinazionalak Afrikako gaixoak erabiltzen dituzte etikaren kontrako tratamendu medikoekin esperimendatzeko; baliabide mineralen harrapaketak (koltana, urra, diamanteak), pobretzeaz gainera, Kongoko 4 milioi pertsona hil ditu; aspaldiko sendabideei buruzko ezagutza eta Afrikako jatorrizko produktuak desjabetuak izan dira eta atzerriko patenteekin fabrikatzen dira.
7. Hurbil egonda ere, informazio garaian bizi bagara ere,... Afrika kontinentea ezezaguna da oraindik orain guretzat. Bere pobrezia baino ez ditugu ezagutzen. Baina Afrika hori baino gehiago da.

## LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Taldeari gonbitea egiten diogu Afrika kontinentera hurbiltzeko. Eskatuko diegu euren Lan Koadernoaren 1. Fitxan agertzen den mapan herrialdeak dagokien lekuan kokatzeko. Lehenengo saiakeran eskatuko diegu inongo laguntzarik ez erabiltzea, zenbat herrialde koka dezaketen ikusteko. Taldeak zuzen kokatu dituen herrialdeak zenbatuko ditugu. Gainontzeko herrialdeak liburuen edo interneten bidez kokatuko dituzte.
2. Taldeari eskatuko diogu, interneten laguntzaz, Giza Garapen Indize (GGH) handiena duten Afrikako hiru herrialdeak topatzeko (berdez seinalatuko dituzte mapan) eta GGH baxuena duten hirurak (gorriz seinalatuko dituzte mapan).
3. Taldeari gonbidapena egingo diogu interneten Afrikari buruzko hiru berri topatzeko. Aurkitutako berriak azalduko ditugu (izenburua arbelean idatz dezakegu edo mural batean). Hauen analisisa egingo dugu: Zer nolako berriak aurkitu ditugu (tematika)? Berri onak edo txarrak dira? (Arbelean/muralean bi zutabetan sailka ditzakegu, albo batean positiboak eta bestean negatiboak jarriz) Zergatik gertatzen da hau? Ondorioak aterako ditugu.
4. Taldeak egingo ditugu, 3-4 pertsonetakoak, eta ondoko lana egiten saiatuko gara:
  - ✓ Afrikako herrialde bat aukeratu.
  - ✓ Aukeratutako herrialdearen aberastasun/ondasunei buruzko informazioa topatzea (historia, ballabide naturalak, paisaiak, ohiturak, kultura, erlijioa...).
  - ✓ Herrialdea aurkeztuko dugu ikus-entzunezko ballabideak erabiliz (Power Point, Movi Maker,...).
  - ✓ Taldeetan egindako lana batera jarriko dugu.
5. Ondorioak aterako ditugu: zer ezagutzen dugu Afrikaz? zer iritzi daukagu Afrikaz? zer da benetan Afrika?
6. Sortutako ondorioak edo ikus-entzunezko materiala blogera bidali ahal da (procladeyanapay@gmail.com)



GGH	
Seychelles	0.843
Libia	0.818
Mauricio	0.804
Guinea Bissau	0.374
Burkina Fasso	0.370
Sierra Leona	0.336

# 1. Jarduera: **Ausartu AFRIKA ezagutzen**



Kokatu mapan herrialde bakoitza dagokion lekuan.



An outline map of the African continent with its national borders. Surrounding the map are lists of country names in Basque. On the left side, the names are: Angola, Burkina-Fasso, Burundi, Boli Kosta, Egipto, Ekuatore Ginea, Eritrea, Etiopia, Gabon, Ghana, Ginea Bissau, Kongo, Kamerun, Liberia, and Libia. On the right side, the names are: Mauritania, Mozambique, Rwanda, Senegal, Sierra Leona, Somalia, Sudan, Txad, Uganda, and Zinbabwe.

## 2. Jarduera:

**GOSE etengabea****HELBURUAK**

1. Kontziente izan behar dugu gizartearen arazorik handienetako bat gosea dela oraindik ere, bereziki Afrika kontinentean.
2. Afrikan gosea sortzen duten kausak deskubritu eta ikertuko ditugu, bereziki bioerregaiaren produkzioarekin lotutakoak.
3. Munduan gosea murrizteko laguntza eman dezaketen jarrera pertsonal eta taldekakoak sustatuko ditugu.

**EDUKIAK**

1. Gosearen arazoa Afrikak pairatzen du nagusiki.
2. Gosearen kausak aldatu dira historian zehar. Baina hauetan beti aurkitzen da ondokoa: pobretutako herrialdeen natur eta giza baldintzen ustiapena.
3. Gosearen arazoa larriki pairatzen duten herrialdeen baldintza naturalak ustiatzeak beraien agorpena ekarri du, interes ekonomikoengatik gerrak sortu ditu, ingurumenaren hondatzea ekarri du (basamortu bihurtzea, airearen eta uraren kutsadura), emigrazioa, errefuxiatuak... Ondorio guzti hauek gose gehiago sortu dute eta, honenbestez, pobrezia gehiago.
4. Denbora luzean uste izan da gosearen kausetako bat elikagaien falta zela. Orain dela 20 urte baino gehiago, demostratu da dagoen produkzioarekin 12.000 pertsona hornitu daitekeela (NBERen txostena), hots, planetaren populazioaren bi halako.
5. Azken urteotan, nekazaritza elikaduraren krisia larriagotu da bioerregaien ekoizpenagatik. Elikagaiak sortzera zuzendutako soroak ibilgailuentzako erregai modura erabiliko den zereala sortzeko erabiltzen dira. "Alderantzikatzeko" honek, pobretutako herrialdeetako nekazariarentzat onuragarria izan zitekeena, pobrezia iturri berri bat bilakatu da, izan ere, multinazionalak kontrolatzen baitute merkatua eta arauak ezartzen.
6. "Negozio" berri honekin, herrialde hauetan bizi diren pertsonen elikadura-eskubidea jartzen da kolokan.
7. Neurri politikoekin batera, gosearen arazoarentzako irtenbidea gure bizimodu kontsumitzailearen ohiturak aldatzean datza: baldintzen kontsumo moderatua (ura, energia, erregaiak), bidezko merkataritzaren produktuak erostea, hondakinen birziklapena,... Kontziente izan behar dugu oporretan gastatzen dugun gasolinarekin Afrikako pertsonak jan dezaketela zenbait egunetan.

## LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. **Afrika** bideoa ikusiko dugu. Bertan Afrikako irudiak agertzen dira, eta hauek gosearen problema larria gogorarazten digute. Taldeari eskatuko diogu, binaka, ondokoari buruz hitz egiteko: sentitu dutena, gehien inpresionatu dituzten irudiak, bideoarentzako izenburu bat proposatzea.
2. Taldeka hitz egingo dugu ondokoari buruz: Zeintzuk dira gosea egotearen arrazoi nagusiak? Ba al du zerikusirik gure bizimoduak arazo larri honekin?
3. Lan Koadernoaren 2. Fitxan agertzen den **KRISIarentzako irtenbideak?** artikulua taldeka irakurriko dugu. Artikuluan agertzen den informazioari buruz mintzatuko gara: harritzen gaituzten datuak, zalantzak, gaiari buruz dauzkagun beste informazio batzuk...
4. Taldeka hausnartuko ditugu ondokoak: bidezkoa da batzuek gosea pairatzea beste batzuek (guk) gure bizimodua (kontsumoa) mantentzeko? Zer pentsatuko/sentituko genuke munduaren beste alde horretan egongo bagina (gosea pairatzen duen alde horretan)? Zer eskatuko genioke beste alde honi? Gure errealitatekin, zer egin dezakegu, zer dago gure esku?
5. Pertsona bakoitzak **Kalkulu energetikoak** ariketa egingo du. Egindako lana komunean jarriko dugu. Datuak ikertu ondoren (erregai kontsumoa - pertsona baten janaria), ondorioak batera jarriko ditugu.
6. Ondorioak aterako ditugu taldeka.

## JARDUERA OSAGARRIAK

- ✓ Bideoforuma **La pesadilla de Darwin** pelikularekin.
- ✓ Informazio Kartelen Txapelketa bioerregaiei buruz.
- ✓ Egunkarietara gutunak bidaltzea, gai honi buruz ateratako hausnarketa eta ondorioekin.
- ✓ Irakurri eta hausnarketa egin **Lokatza jaten dute bizitzeko** testuarekin (25. orrialdea).
- ✓ Bilatu informazioa ez jatekoak diren produktuei buruz eta hausnartu duten zerikusia elikagaien krisialdiarekin.

# 2. Jarduera: GOSE etengabea




## Krisiaren zuzenbideak?

Azken hilabeteotan esaten da munduak elikadura-krisi handi bat bizi duela eta milioika pertsona gosea pairatzera eta janaririk gabe hiltzera kondenatuta daudela. Pobretutako herrialdeen arazo larriak areagotu dira elikagaien kostuaren igoera arinagatik. Munduko Bankuaren arabera, oinarritzko elikagaien prezioa %83 igo da 2005etik hona. Eta, dirudienez, gehiago igoko da.

Planetako biztanleen erdia eguneko bi dolar baino gutxiagorekin bizi da, eta mila milioi inguru, eguneko dolar bat baino gutxiagorekin. Pertsona hauentzat, garia, soja, arropa eta artoa dira oinarritzko elikagaiak eta elikadura-krisia hasi arte euren diru-sarreraren %75 gastatzen zuten hauek erosten.

Deigarriena da, 2008an, zereal eta arrozaren munduko produkzioak errekorra markatuko duela, baina prezioak gora jarraitzen du. Arazoa ez da munduan elikagaiak falta direla.

Zer gertatzen ari da benetan? Nori egiten dio on pobreen goseak? Nazioarteko enpresa handiei eta finantza-inbertitzaileei. Dolarraren eta burtsaren jaitsieragatik eta etxegintzaren merkatuaren erorketagatik euren negozioa murrizten ari dela ikusirik, bide berriak bilatzen dituzte: petrolio eta zerealak erosi bioerregaiak ekoizteko.



## Garraiogintza jasangarria?




Bioerregaiak materia organikoarekin (gehienetan landatutako gaiekin) fabrikatutako karburante likidoak dira. Normalean erregai fosilekin nahasten dira ohiko ibilgailuetan erabiltzeko.

Etanola gasolinaren ordez erabil daiteke. Hau arto, gari, azukrekanabera edo erremolatxarekin egiten da. Biodiesela dieselaren ordez erabil daiteke. Koltza edo palmaren olioaren moduko olio-

gaiekin egiten da.

Europako Batasunak hauen erabilera bultzatzen du bi arazoirengatik: energia-iturri berrien erabilera (petrolio bukatzen ari da) eta gasen isurketak murriztea. Honek ekarri du pobretutako herrialde asko honetan inbertitzen hasia, pobretasun egoeratik irteteko.





## Zein giza-kosturekin?

Behin pertsonen euren lurrak galtzen dituztenean, euren bizimodua ere galtzen dute. Haietako asko hirietako auzo marjinaletan bukatuko dute lana bilatu nahian; beste batzuek emigratuko dute, eta zenbait, lurrik gabe utzi dituen plantazio horietan bertan enplegatuko dira egoera kaskarretan.

Lurra kontserbatuta ere, euren bizimodua mehatxatua egon daiteke plantazioen praktika ez jasangarriengatik, ura, airea eta inguruko lurrak kaltetzen baitituzte. Ureztatze-sistemek uraren eskasia areagotzen dute. Horren ondorioz, inguruko komunitateek lurra landatu ahal izateko zailtasunak dituzte.

Plantazioetako lan-baldintzak gogorak dira. Adibidez, Brasilen, langileek mozten duten azukrekanabera kopuruaren arabera irabazten dute: tona bakoitzeko dolar bat baino pixka bat gehiago. Sistema honek emakumeak diskriminatzen ditu automatikoki, gizonek beste ezin dutelako moztu. Langileak baldintza miserabletan bizi dira, ur edangarririk gabe, eta janaria eta botikak plantazioan erosi behar dituzte oso garesti. Honek, azkenean, langileak esklabo bilakatzen ditu. Lan-txandak 12 ordukoak izaten dira, 30°C-ko tenperaturarekin. Indonesiako palma-soroetan emakumeek soldatarik gabe lan egin behar dute euren senarrek produkzio-kuota lortu ahal izateko.

## Elikagaiak erregai bilakatzea?

Baldintza egokiekin, bioerregaiak aukera handiak eskaintzen dituzte pobrezia murrizteko, herrialde hauetako nekazal sektoreak indartuz. Dena dela, berriro ere, populazio pobrea zanpatua izan ohi da.

Oinarrizko ekosistemen deforestazioak (adib.: oihan tropikalak) bioerregaien landaketei leku egiteko, kezka handia sortu du ingurumenaz arduratzen direnen artean. Honetaz gainera, milioika pertsona desplazatuak izan daitezke euren lurretatik. Tanzanian, nekazari-talde batzuk bortxaz desplazatu nahi dituzte bioerregaien landaketei tokia emateko. Honekin munduko errefuxiatuen krisirik larriena sortzen ari da.



## GOSEA handituz joango da



Bioerregaiak lortzeko munduko populazioaren parte handi batek jateko erabiltzen dituen produktuak eta lurrak erabiltzen dira. Herrialde garatuen helburua elikagaiak erregai bilakatzea bada, gizateriaren gehiengoa gosea pairatzen ari denean, argi dago matxinadak sortu daitezkeela. Petrolio-eskaeraren %20 bioerregaiekin ordeztu nahi bada, ez da jatekorik egongo.

Gure mundu honetan, pobretutako herrialde batek ezin du legerik sortu bere populazioa elikatzeko, lege horiek "komertzio librearen" aurkakoak badira. Gure mundu honetan, gosetutako milioika pertsona duten herrialde batzuek elikagaiak esportatzen dizkiete populazioa ondo elikatuta daukaten herrialdeei, elikagai horiekin haien ibilgailuak elikatzeko. Zergatik?

# KALKULU ENERGETIKOAK



## DATUAK

- 100 litroko etanol-tankea betetzeko behar den zereal kopuruarekin pertsona bat elikatu daiteke urte batean (365 egun).
- Bioetanola gasolinarekin nahasten da ingurumena gutxiago kutsatzeko. Nahasketan %10 etanol eta %90 gasolina jartzen da.
- Kontsumo baxuko teknologia duen auto batek 100 kilometroko 4 litro bioetanol kontsumitzen du errepidean.
- Gironatik A Coruñara 1.218 kilometro dago.

**1** 100 litro etanol erabiliz, zenbat erregai nahastu (bioetanol) lor dezakegu?

**2** Nahasketan lortutako erregai litro guzti horiekin, zenbat kilometro egin ditzakegu daukagun kontsumo baxuko teknologia duen autoarekin?

**3** Eman dezagun pertsona bat Gironatik A Coruñara doala oportretan. Nahasketako zenbat litro kontsumituko lituzke bidaian (joan etorrian)?

**4** Erregai litro horiekin, zenbat pertsonak jan lezakete urte batean?

**ATERA ZEURE ONDORIOAK**

## 3. Jarduera: Hitzetatik ekintzetara



### HELBURUAK

1. Boli Kostako errealitatera hurbildu, hain zuzen, anakardoa ekoizteko emakumeen Bonduku kooperatibaren egitasmora.
2. Bonduku egitasmoarekin solidarizatu, taldeko inizatibak eta inizatiba pertsonalak sustatuz eta gure ingurukoei ezagutaraziz (familla, lagunak, herria/hiria).

### EDUKIAK

1. Boli Kosta, Frantziako kolonia ohia, Mendebaldeko Afrikan dagoen herrialdea da eta azken urteotan guda zibila jasan du. 18 bat milioiko populazioa dauka. Bere Giza Garapen Indizea (GGI) 0.432koa da (177 herrialdetan 166. lekuan). Populazioaren %9 VIHk kutsatuta dago. Populazioaren %36,8 nazioko pobreziaen marrantik baino beherago dago.
2. Guda zibilak 600.000 pertsona baino gehiagoren lekualdatzea ekarri zuen.
3. Azken urteotan, esportazioko produktu garrantzitsuenen (kakaoa eta kafea) prezioa jaitsi da. Jaitsiera honekin batera, oinarrizko elikagaien eta erregaien igoera gertatzen ari da. Horrek populazioaren gosea areagotu du.
4. Herrialdearen iparraldean, Zanzan eskualdean, Bonduku anakardoaren produktoreen kooperatibak egitasmora bat jarri nahi du abian euren produkzioaren kalitatea hobetzeko eta bidezko merkatuaren eskutik euren esportazioak areagotzeko.
5. Eskualde hau, Sahel ondoan, oso pobrea izan da betidanik nekazaritza alorrean. Azken urteotan, ikusi da baldintza klimatikoak onak direla anakardoa landatzeko. Produktu hau B bitaminan eta mineraletan (potasio, kaltzio, burdina eta fosforoa) aberatsa da eta gero eta gehiago eskatzen da tokian bertan eta kanpoko merkatuan.
6. Egitasmoaren helburua emakume hauei formazioa ematea da fruitu honen erabilera hobetzeko. Aldi berean, kooperatiba hornitu ere egin nahi du (makineria) kalitatezko produktua lortzeko eta erraztasunez saldu ahal izateko European bidezko merkataritzaren sareen bidez.
7. Kanpaina honen bidez, kooperatiba hornitzen lagundu nahi dugu. Horren kostua 21.000 eurokoa da.

## LAN EGITEKO PROPOSAMENA

1. Afrikako mapan Boli Kosta kokatuko dugu. Taldeetako batek herrialde honi buruz lan egin bazuen, lortutako datuak oroitu ditugu. Honi buruzko datuak izan ezean, taldea gonbidatuko dugu datuak internet bidez bilatzen: historia, populazioa, baliabide naturalak, egoera politikoa, erlijioetasuna, kultura... Lortutako datuak batera jarriko ditugu.
2. Bonduku Egitasmoa ezagutzen duen pertsona baten testigantza entzungo dugu. Pertsona horrekin hitz egingo dugu herrialdearen errealitateari buruz, egitasmoari buruz...
3. Taldeka hitz egingo dugu ondokoari buruz: zer konpromiso har dezakegu pertsonalki eta taldeka emakume kooperatiba honi laguntzeko? Zein ekintza jar ditzakegu abian egitasmoa ezagutarazteko eta beste pertsona batzuk inplikatuzko?
4. Proposatutako ekintzak jarraitu ahal izateko, jarraipen-komisio txiki bat hauta dezakegu (2-3 pertsona). Hauek hartutako konpromisoak oroitu, animatu eta bultzatzeaz arduratuko dira.



## 4. Jarduera: Emaiezue zuek jaten



### HELBURUAK

1. Hausnartutakoa eta Kanpainan bizitakoa, bai pertsonalki bai taldeka, fedez ospatu.
2. Gure bizitza Hitzaren bidez argitu, herrialde pobreenekiko konpromisoa eta solidaritatea eguneroko konstantea izan daitezen.
3. Afrikan gosea sufritzen duten pertsonen errealitatea otoitzera eraman.

### EDUKIAK

1. Jesus jendearengandik gertu zegoen. Batzuetan nahita egiten zuen topo jendearekin eta beste batzuetan jendeak topatzen zuen bera, bilatua zen. Bere pertsona, bere bizitza, bere ekintzak... erakargarriak ziren.
2. Jesus pertsonen minarekin minberatzen zen. Ez zen soilik idelak eta planak zituen pertsona bat, sentimenduak ere bazituen, eta hauek mugiarazi egiten zuten, jendearen arazoei irtenbide eraginkorrak bilatzeko. Otoitzean, Jainkoarekiko harremanean (bere Aita, bere Abba), elikatzen zuen bere barnetasuna.
3. Jesusen dizipuluak, Maisuarekin bizi baziren ere, ezin zuten erabat ulertu erakutsi nahi zien guztia, ez zeukaten haren indarra (haren espiritua). Horregatik, arazoen aurrean, saihesteko tentaldia izaten zuten (bakoitza ahal bezala konpondu dadila). Jesusek zuzentzen ditu eta aurkezten zaien egoeraz kargutzeko gonbitea luzatzen die.
4. Jesusi jarraituz, bere mezua aintzakotzat hartuz, solidaritatearen miraria posiblea da. Horren froga argiak ditugun arren, mesfidatiak gara oraindik lehenengo pausua emateko; nahiago izaten dugu beste batzuek ekin diezaiotela lehenbizi. Jesusek, berriro ere, gonbitea ematen du berarengan konfiantza izateko eta munduaren eskura gure dohain guztiak jartzeko (intelektualak, materialak, espiritualak...).

## OSPATZEKO PROPOSAMENA

1. Girotzea. Kaperaren erdian jarriko dugu plater handi bat, Afrikako pertsonen argazkiak dituena. Plater honen inguruan autoen iragarkien argazkiak jarriko ditugu. Sinbolo honek Kanpaina honetan egindako hausnarketa jaso nahi du: gure bizimoduak (adib.: erregaiekiko dugun dependentzia) Afrikako pertsonen bizitza baldintzatzen du (adib.: elikatzeko eskubidea).  
Meza baino lehen, taldea gonbidatzen dugu Kanpaina honetan ondoen jaso duen mezua paper zati batean pertsonalki idaztera mezan konpartitu ahal izateko.
2. Motibazioa. Pertsona bakoitza gonbidatzen dugu Kanpaina honetan ondoen jaso duen mezua konpartitzera (ozen irakurri eta erdiko sinboloaren ondoan jarri). Behin guztiek euren mezua jarri dutenean, meza animatzen duen pertsonak Jainkoaren Hitzaz jarriko du erdian: Jesus presente agertzen da meza honetan gu argitzeko, bere indarra emateko (bere espiritua), guztiontzako mundu gizatiarrago bat eraikiz jarrai dezagun.
3. Hasierako abestia.
4. Jainkoaren Hitzaz: **Mateo 14, 13-21** (*Emaiezue zuek jaten*)
5. Hitzaren oihartzuna. Konpartitu ahal dugu.
  - ✓ *Jendea Jesus ikustera hurbiltzen zen.* Zer ematen zien? Zer ematen digu guri gaur? Zer ematen die Afrikako herriei?
  - ✓ *Haiekin urrikaldu zen.* Jesus ez da sorgor geratzen gizakion sufrimenduekin, erreakzionatzen du. Zer sentimendu eragin ditu guran kanpaina honetan gosearen arazoa oroitzeak? Bat egiten al dute gure sentimenduek Jesusenekin?
  - ✓ *Emaiezue zuek jaten.* Dizipuluek jendea bidali nahi dute (problema ahaztu), baina Jesusek gonbidatzen ditu pertsona horietaz arduratzeko. Zer esaten digu Jesusek gosearen arazoaren aurrean, zer jarrera eskatzen digu?
  - ✓ *Jan zuten eta denak asebetete ziren.* Miraria guztiok konpartituz, posiblea da. Jesusengan fedea dugu, sinesten dugu bere urratsei jarraituta mundua aldatuko dela, gu aldatuko gara?
6. Otoitz espontaneoak Hitzaren argitan.
7. Gure Aita.
8. Konpartitutako azken otoitza: **Maitatzen ikasteko otoitza.**
9. Amaierako abestia.
10. Azken bedeinkazioa.

# Otoitza egiteko



## Maitatzen ikasteko otoitza

Jauna, gose naizenean, emadazu janaria behar duen norbait;  
Egarri naizenean, emadazu ura behar duen norbait;  
Hotz naizenean, emadazu beroa behar duen norbait;  
Sufritzen dudanean, emadazu kontsolamendua behar duen norbait;  
Nire gurutzea astuna iruditzen zaidanean, utzidazu besteren gurutzea konpartitzen;  
Pobretasunean banago, jarri nire ondoan behartsu bat;  
Astirik ez dudanean, emadazu nire minutuak behar dituen norbait;  
Umiliatua banaiz, emadazu aukera norbait goraiatzeko;  
Animorik gabe banago, emadazu norbait animo berriak emateko;  
Besteek ni ulertzea nahi dudanean, emadazu nire ulermena behar duen norbait;  
Zain nazaten beharrezko zaidanean, emadazu norbait nik zaintzeko;  
Nigan pentsatzen dudanean, zuzendu nire arreta beste pertsona batengana;  
Zure laguntzarekin izan gaitezen duinak, Jauna, gure anai-arrebak zerbitzatzeko;  
Emaiezu, gure eskuen bitartez, ez soilik eguneroko ogia,  
baizik eta gure maitasun errukiorra, zurearen irudia dena.



**Madre Teresa de Calcuta**

## Hala ere



Pertsonak irrazionalak dira, ilogikoak eta bere baitara bilduak,  
HALA ERE, MAITA ITZAZU  
Ongia egiten baduzu, motibazio egoistak dituzula leporatuko dizute,  
HALA ERE, EGIN EZAZU ONGIA  
Arrakasta baduzu, lagun faltsu eta egiazko etsaiak irabaziko dituzu,  
HALA ERE, IZAN EZAZU ARRAKASTA  
Egiten duzun ongia bihar ahaztuko da,  
HALA ERE, EGIN EZAZU ONGIA  
Zintzotasunak eta zabaltasunak ahul egiten zaituzte  
HALA ERE, IZAN ZAITEZ ZINTZO ETA ZABALA  
Urte luzeetan eraiki zena gau batean suntsitu daiteke,  
HALA ERE, ERAIKI EZAZU  
Egiazko jendeak laguntza behar du baina eraso zaitzakete egiten baduzu,  
HALA ERE, LAGUN IEZAIEZU  
Emaiozu munduari daukazun onena eta hortzak ostikatuko dizkizute,  
EMAIOZU MUNDUARI DUZUN ONENA... HALA ERE.

## Solidaritatearen Oitoitza

Zoriontsuak izan bitez Jesusi jarraitzen diotenak samariar onaren bidetik. Bere urratsen atzetik dabiltzanak, bidearen zailtasunak eta ibiliaren nekeak gaindituz. Zoriontsuak ibiltzean bide berriak sortzen dituztenak, beste batzuek jarraitzeko, atseginez, eta Jainko gure Aitaren lanarekin segitzeko. Zoriontsuak, erne eta gertu euren bidea aldatzen dutenak, sufritzen, negar egiten eta gosea pairatzen dutenengan bizirik dirauen Jainkoaren bila ateratzeko.



Zoriontsuak euren bizitza besteen alde ematen dutenak. Gogor lan egiten dutenak justiziaren alde. Erresuma eraikitzen dutenak, leku urrunetatik. Zoriontsuak, anonimoki eta hantusterik gabe, euren bizitza eskaintzen dutenak beste batzuk gehiago eta hobeto bizi daitezen. Zoriontsuak, euren eguneroko sakrifizioarekin, gizarte berri baterako urratsak ematen dituztenak, "merkatu-jaunak" agintzen duen gizarte honetan.

Zoriontsuak pobreen alde lan egiten duten GUZTIOK. Pobreengandik gertu, pobreen ondoan, pobre bihotzez. Zoriontsuak anai-arreba zehatza maitatzen dutenak. Euren egiazko maitasuna, bizitza-ekintzez, konpainia-ekintzez eta benetako entregaz erakusten dutenak. Zoriontsuak irakasten dutenak, besteek ikasten saiatzen direnak, kolore, azala edo diruagatiko desberdintasunik egin gabe.



Zoriontsuak lehenbizi anai-arrebarengan pentsatzen duten GUZTIOK eta besteen eta Erresumaren aldeko lanetan euren zoriontasuna, atsegina eta bizitzaren zentzua topatzen dutenak.

## Motxila bete ogi

Misiolariak bere motxila ogiz bete zuen eta bidaiari ekin zion. Zihoan aberriari buruz ikusitako irudiak beti ziren berberak: guda, miseria, gosea... "Behintzat, ni ailegatzen naizen egunean ez dute goserik pasatuko", esan zuen bere baitarako. Baina bidea luzea zen eta motxila oso pisutsua misiolariaren indar txikiarentzat. Herri batetik pasatzean eskorga bat ikusi zuen eta hura erosteko zaraman janariaren erdia ordaindu zuen. Horrela arinago bazihoan ere, gauak bidean harrapatu zuen eta ostatu bat bilatu zuen. Horren truke geratzen zitzaion gainontzeko janaria ordaindu zuen. Goizean, misiolariak bere bideari ekin zion eta barregarri sentitu zen eskorga huts bati bultzaka. Zer eskaini zezakeen orain janaririk gabe zegoela? Gutxi balitz bezala, bidearen harriek eskorgaren gorpila hondatu zuten eta misiolariak albo batera utzi behar izan zuen eta bideari esku hutsik ekin. "Zertarako?", esan zion bere buruari, baina helburutik horren gertu zegoela ezin zuen atzera egin. Bere herrialde berriaren lehenengo herrira heldu zenean, bertan bizi zirenek ikusminez hartu zuten. Misiolariak, haien hizkuntzan ikusitako lau hitzez, bakean zetorrela eta euren laguna zela azaltzen saiatu zen... eta ezer ez zeukala. Esaten zuena ongi ulertzen ez zuten arren, herrikoek ulertua zuten hori nahikoa eta sobera zela. Eserarazi zuten eta ur ugari eta kakahueteak eskaini zizkieten gosea arintzeko. Jan bitartean nondik eta zergatik zetorren galdetu zioten. Misiolariak ikusitako gose-eszenak azaldu zizkien eta, Jesusen dizipulu legez, zerbait egitera mugiarazi zutelara, bidean jartzen behartu zutelara... ezertarako ez. "Hori paradoxa!", pentsatu zuen, "haiek elikatu behar naute". Janaria bukatuta, misiolariak altxatu zen eta esan zien:

- Banoa, etxera itzuliko naiz, nire bidaia porrota izan da, ez dut lortu nahi nuena.

Baina haiek esan zioten:

- Ez, gelditu eta hitz egiguzu ezagutzen ez dugun eta zure bizitza elikatzen duen Jesusi buruz.

Eta misiolariak deskubritu zuen ez zegoela hutsik, bazuela zerbait konpartitzeko: Jesusengan zuen fedea.





# Saski-naskia



## SALAKETA : Lokatza jaten dute bizitzeko

Haitin, zenbait familiak lokatz-gailetak besterik ez dute jateko.  
Merkatuan erosten dituzte, hiru zentimo euro bakoitza.  
Hasieran buztina erabiltzen zuten, baina bukatu zen.

Cajenunes-ek, 11 urte, burua hutsik uzten du, funtsean lokatzez eginiko gaileta irentsi baino lehen. La Saline merkatuan erosi zuen. Ordu luzetan kendu ezinik izango du bere zaporea ahoan. Bere esklerotikoa horixka da. Zimurtxoak ditu begien azpian, bere adinari ez dagozkionak. Cité Soleil (Puerto Principe, Haiti) auzo guztiz txiroaren horma baten kontra jartzen da eta lurrez betetako mingaina erakusten du. Espontaneo, pikaro, mingarria. Jakin gabe, munduari erakusten dio zer daukan jateko. "Ez dauka gustu txarra. Gosea arintzen dit", esaten du kreoleraz.

Fort Dimanche izeneko kartzela zahar abandonatua, Chante-k, 19 urte, eta bere lagunek Cajenunes-ek jan dituen pastak prestatzen dituzte. Euren lanaldia goizaldeko 4:30ean hasten da. Osagaiak upel handietan isurtzen dituzte. Lokatza, gatza eta kalitate baxuko barazki-gantza irabiatzen dituzte. Chante-k eskerreko besoarekin eusten dio bere haurtxoari.



Prozesuak antz handiagoa dauka adreilu-fabrika batean erabiltzen denarekin gozogintzan erabiltzen denarekin baino. Artisauak euren lana sikatzen uzten dute teilatuko zabaltzan. Olatak sei bider hamabiko lerrotan jartzen dituzte. Kalkulu arin batean 3.000 inguru zenbatu daitezke. Horrela egunero. Nondik ateratzen dute lokatza? Lehenago buztin jangarri bat erabiltzen zuten. Baina kontsumo handiak prezioak disparatu ditu. 12 hilabetetan %30 igo da eta jada ez da erabiltzen. Hiriaren ingurumarietan pilatzen den lurra erabiltzen da, zabortegeien ondokoa. Orea bera pozoia da. Toxiko eta parasito ugari dauzka (hala nola Ancylostoma duodenalea, zeinak hazkundearen eta garapen intelektualaren atzerapena sortzen baitu umeengan).

Gailetak prest daudenean La Saline merkatuan zabaltzen dira (bertan saldu ziren enkantean Amerikako lehenengo esklaboak). Azpil handitan erakusten dituzte. Hiru ale bost gourdetan edo bederatzi zentimo euro. Familia ugari jaten dituzte. Hiru aldiz egunean. Ezin dute oinarritzko jangaien prezioak ordaindu. Gizaki hauek eguneko 15 zentimo baino gutxiagorekin bizi dira. Euren pastatxoak hartzen dituzte eta zati txikitzen jan. Gosarian hasi eta hurrengo jatordura arte. Arratsean, saltzaileek saldu ez dituzten gailetak biltzen dituzte.

Miseria honen azken maila agertzen da: Ale oso bat erosi ezin dutenak zatien eske dabilta. Hondar horiek jaten dituzte, zalantzati, eskuak bildurik. Distantziatik, euren siluetek otoitza baten antza dute.

## GOSEA: BAKEARENTZAKO MEHATXURIK HANDIENA

### GOSEA DA GIZATERIAREN GERRARIK HANDIENA

FAOren azken txostenak (2002), 2001eko PNUDeK (Garapenerako Nazio Batuen Programa) eta OMSen Osasun Globalari buruzko dokumentuak (2000) azpimarratzen dute gosearen egoera munduan ez dela hobetzen, kontrakoa baizik. Aberatsenen eta miseria sufritzen duen gehiengoaren arteko desberdintasunak handituz doaz.

Gosea da, alde handiz, gizakiak, XXI mendearen hasieran, duen arazorik larriena. Gosea da hiltzeko modurik ohikoena. Gaixotasun iturri nagusia da eta osasun arazorik handiena. Arazo ekonomiko garrantzitsua. Arazo politikorik larriena. Arazo ekologikorik garrantzitsua. Gosea da Justiziaren arazorik garrantzitsua. Bakerako arazorik garrantzitsua. Hala ere, denari buruz hitz egiten dute, baina funtsezkoena isiltzen dute.



### GOSEAREN ERRETORIKA: DENEK NAHI DUTE BERAREKIN BUKATU. INORK EZ DU EZER EGITEN

FAOk berak ere onartzen du, gaur egun, elikagaien produkzioa demografia baino arinago hasten ari dela. Edo Jean Ziegler-ek (NBEko errelatoreak) ondo laburbiltzen duen bezala: *"munduan gosea dago sistema hiltzaille bat nagusi delako: kapitalismo espekulatzailleak, egunero, 100.000 pertsona hiltzen ditu gosez munduan. Kapitalismoa baino lehen ere bazegoen goserik, baina zorigaitz bat zen: ez zeukan irtenbiderik. Gaur badauka. Egun, elikagaien oparotasuna dago. Goseak badu konponbiderik! FAOk dio: Munduko nekazaritza 12.000 pertsona elikatzeko gauza da, planetako egungo populazioaren bikoitza!*

Honek guztiak agerian uzten du gosearen benetako arrazoiak, funtsean, politikoa direla.

### MISERIAREN PARADOXA

*Miseria negozio bat da. Kapitalismoaren benetako motorra. Kapitalismoaren logika ondokoa da: etekinak handitzea arriskuak minimizatuz, guztiz aldeko zaizkion inguruetan. Hau lortzeko modu bakarra, zalantzarik gabe, kontra-prestazioak gizakien gehiengoaren bizkarretan zamatzea da. Miseria da kapitalismoaren egiazko motorra. Miseria da oparotasunaren erregaia. Bloy-ren antzinako Hitzak inoiz baino egiazkoagoak dira: "Dirua da pobreen odola".*

*Miseria da erloju-bonba bat. Kapitalismoak urte luzetan iraun du, direnak eta ez direnak eginez. Urte luze hauetan analista guztiek egungo egoeraren kolapsoa iragarri dute. Duela 50 urte baino gehiago, Frantzia errepublikako presidente De Gaullek zioen: "bakea hauskorra izango da, ondo hornitutako euren anai-arreben aurrean, 2 mila milioi gizaki miserian dauden bitartean". Edo Carter presidentek: "Bakerako mehatxurik handiena heren bat aberatsa den eta bi heren goseak dagoen mundu honetatik dator". Bai eta mende honetako aita-santuek ere. Haien artean, Pablo VI.aren hitzak nabarmentzen dira, euren argitasunagatik: "Begiratu bat egin diogu gosearen mendeari (XX. m.) Orain galdetzen dugu gure baitan: Gehiegizkoa al da aberatsei esatea pobreek euren oturuntzetako hondarren eske daudela?", eta Juan Pablo II.arenak (8), Kanadan gogoratu zuenean Hegoaldeko herriek Iparraldekoak juzkatuko dituztela.*

*Noiz arte? galderak ez du erantzunik. Momentuz, egia bakarra da biolentzia pobreen artean sortzen ari dela. XX. mendearen bigarren erdian, munduan dauden liskar gehienak eta gerrak Iparraldetik Hegoaldera lekualdatu dira. 1945az geroztik, Hegoaldeak 120 gatazka baino gehiago sufritu ditu eta bertan 20 milioi pertsona hil dira, II. Mundu Gerra odoltsuan baino gehiago.*

Afrikan, adibidez, gosearen mapa gerraren eta gaixotasunen maparekin bat dator.

Rodrigo Lastra

Medikua eta Kultur Mugimendu Kristauaren kidea.

## GOSEA HIESAREKIN NAHASTU NAHIAN

**Gosea da, alde handiz, gizakiak, XXI mendearen hasieran, duen arazorik larriena.  
Gosea da hiltzeko modurik ohikoena.  
Gaixotasun iturri nagusiarena da eta osasun arazorik handiena.**

HIESA aurkitu zenetik, 80ko urteen hasieran, bitarteko guztiak jarri dira SUSMO MUNDIALEKO GIROA sortzeko. Itzal bat dago kulunka gizakiaren gainean, gaixotasun itxuran.

Zergatik malaria, HIESA baino 15 aldiz gehiago hiltzen du, eta dengea, sukar horia, disenteria, kolera, legenarra, tuberkulosia, eta abar ez dira segurtasun globaleko arazo bezala aitortzen?

Herralde aberatsetan, HIESAren

diagnostikoa laborategiko bi proben bidez egiten da. Hauek azpiegitura sofistikatua eta bitarteko ekonomiko ugari behar dituzte. Afrikan, ezin pentsatuzkoa da proba hauek edukitzea, beraz, HIESAren diagnostikoa klinikaren bidez egiten da, hots, sintomen bidez. Angolako Osasun laguntzailearen HIESAren diagnostikoari buruzko eskuliburuak ondoko "ezaugarri nagusiak" ematen ditu: *Pisu galera; Beherako kronikoa, hilabete bat baino gehiago, eta sukarra, hilabete bat baino gehiago*". Sintoma hauen bitartez HIESA diagnostikatzea ezin pentsatuzkoa da zientifikoki, izan ere, sintoma hauek Afrikako gaixotasun endemikoak definitzen dituzte, gose globalaren egoera definitzen dute, finean. Afrikako zein lekutan ez da pisu galera, beherakoa eta sukarra ematen saneamendua eta elikadura egokiak ez direnean?

Hitz batez esanda: AFRIKA GOSEZ HILTZEN ARI DA, EZ HIESAZ. Gosearen arazoan gizakiak daukan ardura, birus bati egozten zaio, eta kontinente oso bat kondentzen da hiltzera. HIESA, beraz, populazioa murrizteko estrategia baten barruan kokatzen da (gosearen bonba desaktibatzea). 1988an, "Disuasio selektiboa" izeneko estrategia militarreko dokumentu bat itxaropentsu agertzen da HIESAren izurriteak Hirugarren Munduko

populazio-hazkunderaren mehatxua konpon dezakeelako. Estrategia hau zenbait hamarkadetan dago abian. Zenbait dokumentutan, hala nola AEBetako Segurtasun Kontseiluaren 200. memorandumean, 1974an egina eta urte luzeetan isilpean mantendua, baieztatzen da Hirugarren Munduko populazioaren hazkundera mehatxua zela Estatu Batuetako interes nazionalentzat.

FAOren presidente ohi Josue Castrok esan zuen bezala, "Bizitza hiltzea, noski, errazagoa eta merkeagoa da, eta ez die inongo sakrifiziorik eskatzen metodo hau zabaltzen duten herrialde aberatsei (birth control). Hobe oraindik, merkatu erraldoiak irekitzen zaizkie antisorgailu merkatuarentzat. Honek, gainera, euren kontzientzia lasai edukitzen laguntzen die, banketean lekurik ez duten horien guztien aurrean".





San Francisco, 12A-3º  
48003 - BILBAO  
[mision-bi@terra.es](mailto:mision-bi@terra.es)